



Gomendio *etxebizitza*

Aldacrak:

Ahozkoa: Koméndidxo / Komúntidxo

*“... una casería denominada Gomendio mayor, sita en el barrio de Murgoitio... radicante en jurisdicción de Berriz... cuya casa se compone de una vivienda, piso llano, principal y camarote, y mide su planta solar tres áreas cuarenta y dos centíareas y cuarenta y cinco decímetros, equivalentes a noventa estados y cinco céntimos...”
DJE 6/243 or. (1896)*



43° 9' 50"

2° 34' 24"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Topatutako lehen arrasto dokumentala, hots, *Gomendio*, 1704koa da. Bertan, Murgoitio kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hori. Mitxele-nak bere lanean jasotzen du 1100. urtean jada baserri honen berri zutela.

Etxean bi alde bereizten dira: nagusia, jatorrizkoa izango zena, eta bestea, erripa aprobetxatuz ezker aldean erantsi ziotena, upategia egiteko XIX. mende hasieran. Orduan, teiltatua ere altxatu zioten, gailurra lekuz aldatu, eta, itxuraz behintzat, batasuna eman fatxadari. Ate berria zabaldu zuten beheagoko sotoan, harrizko ateburu batekin, eta baita leihoa ere, etxe zaharraren parean. Azken hori eraikin

dotorea eta barrokoa da, beste baserri batzuen traza berekoa. Sarrerako arku handiak, gaineko bi leihoek eta batik bat Gomendiotarren armairri dotoreak erdialdeko gorputza nabarmen-tzen zuten. Aldamenetan, ohiko leiho handia dugu beheko solairuan, eta txikiago bat, aldiz, goikoan. Harlangaitzaz eraiki zuten etxea, eta harlandua erabili zuten, gehienetan legez, arku eta leiho ertzak egiteko. Bestalde, bereizi gura genuke armarría elizgizon bati dagokiola, ha-ren kapelak eta borlek ondo adierazten duten moduan. Baliteke, beraz, Juan Bautista de Zua-za eta Gomendio (1633-1679) Salamancako Unibertsitateko Kanonetako katedraduna iza-tea sustatzailea.